

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzua: 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokion zerga errolda jendaurrean jartzea eta diru bilketako epea adieraztea

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2020ko bigarren hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onetsizat emango da epe horren barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

2020ko uztailaren 15etik irailaren 15era bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, dagozkion ordainagiriak.

Ordaintzeko era:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak kudeatuko du, zuzenean, ordainketa helbideratu den finantza entitateetako kontuetako zordunketa, 2020ko irailaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (gaztigu oharrarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak:

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek xedatutako erreklargua gehituko zaie.

Legutio, 2020ko uztailaren 10a

Alkatea

JON ZUAZO ZUBERO